

Ezpalak

JON TORNER

Iñaki Alforja iruindarrak *El cementerio de las botellas* dokumentala estreinakoz erakutsi zuen jendaurrean hilaren 17an. *Ezkaba* lanean egin zuen bezala, San Kristobal gotorlekuan kokatu du filma. Frankistek lurperatutako presoen gorpuzkiak errekuperatzeko prozesua du ardatz dokumentalak. Aurkezpen nagusia maiatzaren 24an egingo da.

Josetxo Anitua musikari eibartarra hil da. Cancer Moon taldeko abeslaria izan



zen, eta banda hura desagertu ostean hainbat artistekin kolaboratu du. 2005ean adibidez kontzertu berezia eskaini zuen Atom Rhumba taldearekin batera Bilboko Kafe Antzokian. Hain justu, hamar urtez aritu da disko-jartzaile moduan areto horretan.

Sabin Salaberri musikari aramaioarrari eman dio Eusko Ikaskuntzak Manuel Lekuona saria aurtengoan, "sorkuntza, dibulgazio eta musikaren irakaskuntzan Araban egindako lanagatik". Aramaion bertan jaso zuen saria Salaberri, eta ekitaldian bere biografia bildu duen liburua aurkeztu zuten.

Xorroxin irratia Internet bidez (www.xorroxin.com) zuzenean entzuteko aukera dago jada. Duela 27 urte sortu zen Xorroxin, eta hasieran ez zuen emititzeko lizentziarik. Sortu eta 17 urtera lortu zuten.

Xabier Mendiguren Elizegi idazle beasaindarrak bi istorio batu ditu *Bizitza homeopatikoa* liburuan (Susa). "Tonu komiko, umoretsu eta ia esperpentikoan" idatzitako bi kontakizunetan "bizitzaren erdian maiz etortzen diren nora eza, zalantza eta txorakeriak" agertzen dira.

Eibartarrak posta zerrendak (<http://eibar.org/eibartarrak-zerrenda>) 10. urteurrena bete du. 1998ko apirillean jarri zen abian, Luistxo Fernandezek ekimenez. Zerrenda horretako kideek Eibar.org elkartearen sortu zuten geroago.

"Lupa" dokumentalen mostra egingo da Donostian eta Erreterian

MIKELAZULO KULTUR ELKARTEAK eta Banda Bat taldeak antolatuta, 'Lupa' dokumentalen mostra egingo da hilaren 30etik maiatzaren 4ra bitartean Donostian eta Erreterian (Gipuzkoa). Sortzaile, ekoizle eta banatzaileen elkargune izan nahi duen ekimen horretan Euskal Herriko zein atzerriko autoreek parte hartuko dute. Dokumentalaren alderdi diferenteak jorratuko dituzten mahai-inguruak eta proiektzioak izango dira jardunaldien ardatz. *Gaviotas blindadas 3* filmaren proiektzioak irekiko du egitaraua hilaren 30ean, Donostiako Kutxa aretoan; eta Angor filmak itxiko du maiatzaren 4an, Mikelazulon (Erreteria).



Lili jauregiaren proiektua gelditu dute

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK Zestoako Lili Jauregian Historiaurrearen Museoa egiteko proiektua bertan behera utzi du, eta ondorioz, jauregia eraberritzeko Europak bideratutako 1,8 milioi euroko aurrekontua ere geratu egin dute. Aldundia museoen antolamendu-plana prestatzen ari da, eta Irunen eraikitzen ari diren Ondare Higigarrien Zentroa izango da proiektuaren ardatz. Pilar Azurmendi Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Ondarearen zuzendari nagusiaren hitzetan, XVI. mendeko jauregia eraberritzea beharrezkoa da, baina ez Ekain haizuloaren erreplikak bete dezakeen papera betetzeko; labar-artearen interpretazio zentroa eta umeentzako tailer didaktikoak izango dira bertan.



[Enrique Ordoñez Huarte arte garaikideko zentroko zuzendaria](#) *Diario de Noticias*-en: «Administrazio Publikoaren proiektu konkretu batzuei ez diete mezenasgorik ematen, ulertzen ez dituztelako, belaunaldi desberdinetakoak direlako agian. Arte garaikidearen arazoa jarrera kontua da, erosotasuna eta gauza berriekiko jakin-min eza».

[Beñat Sarasola idazlearen hitzak jaso zituen Berriak](#): «Jendeak ateratzen ditu liburuak, eta esaten du 'nik hau idatzi dut, baina prentzio gehiegi gabe; atera egin zait eta publikatu egin dut'. Inork ez du esaten 'nire liburuarekin nahi dut aurreko tradizioarekin hautsi edo ez dakit noren kontra joan'. Gure belaunaldiak ezin dio

uko egin poesia mota exijente bati, edo, behintzat, hautsi egin beharreko poesia horri».

[Ritxi Aizpuru Baga-Biga disko-entxeko editoreak Garaiak](#): «Euskadi Gazteak Euskal Herriko musikaren ikuspegia gero eta txikiagoa egitea erabaki du; hots, hamar talde edo single sartuko ditu eta gainontzekoek ez dute pasatuko Gazteak jarritako galbahea (formula). Hori ez da kantuak zentsuratzea, kantu batzuen hautua ez egitea baizik. Abesti batzuk ez baditu gustuko, horien ikusgaitasuna gutxitzearekin talde asko geratuko dira Gaztean pintxatu gabe. Eta zer? Gaztea al da irtenbide eta dialeko frekuentzia bakarra?».

Oteiza artelan baten izena da

Erakusketa: *Larru hunkitua*

Lekua: Boulevard aretoa (Donostia)

Rosiren kioskotik Parte Zaharrera nindoala aretoaren leiho batetik Oteiza ikusi nuen, "Sarrera doan" pauso batzuk aurrerago, eta ezin sartu gabe geratu. Ehun urte batek, hogeita bost besteek: Larruquert aita-seeek erakusketa jarri dute Lamia estudioak mende laurdena bete duela aitzakia hartuta. Maiatzaren 18ra arte izango da ikusgai hiru partetan banatutako lana. Denbora nahikorik ez baina, eta erakusketaren zati bakarra ikusi nuen, Jorge Oteizaren argazkiak biltzen dituen hain zuzen. Erretratu solteak dira batzuk, serie modura irakurri beharrekoak besteak; kolorea eta zuri-beltza nahasian, partetan irakur daitezkeen pentsamendu oteizarrekin batera.

Orioko eskultore-pentsalari-poeta ikus daiteke bizitzako garai desberdinetan. Bi azpimarratzekotan: artista Bilboko udaletxearen parean, *Esferaren desokupazioaren aldaera oboidea* inauguratzean, azken aldiz zutik; eta Itziarren heriotzaren ondoren ateratako argazki saila, Oteiza puskatzen ari zela erakusten duena.

Artista artelan bihurtu dute Larruquertarrek, horrek dituen arrisku guztiekin. Posible baita erretratuetako gizonaren izotzezko begiekin itsutzea, artistaren beraren

estetikarekin, egin zuen lanaz ahaztuta.

Kontu horiek alde batera utzita –ez naiz Oteizaren obraren garrantzia azpimarratzen hasiko, bere mendeurren honetan asko hitz egin(go) da horretaz–, beti egin zait zaila kasu honetan artista eta pertsona banatuta ikustea, beharbada bien arteko lerroa beste askorengan baino lausoagoa izan zelako. Erakusketak lerro hori marraztea lortu duela iruditzen zait, ilobekin eta familiarekin azaltzen den fotografiei eta aipatutako Itziarren sailari esker.

Flash bat azkenik: aretora sartu eta espazioa hiru zatitan banatua aurkituko duzu. Aldatu ez badute, ezkerreko hormatik abiatzen diren gezi batzuk ikusiko dituzu argazkiak zein norabidetan ikusi behar diren adieraziz bezala. Gezi horiek izterrean sartu izan balizkidate ez zidaten horman baino gehiago molestatuko. Ikusleari utzi egin behar zaio erakusketa non hasi eta non bukatu nahi duen erabakitzen.



GORKA BEREZIARTUA



ATALAIA JATETXEA

Aritz Ondo, 69 • 20305 Irun
 Tel: 943 635518 • Faxe: 943 638718
 e-posta: info@hotelatalaia.com
 web orria: www.hotelatalaia.com